


SARETIK ZURERA



ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

EGILEAK: Uxue Redondo Fernandez, Israel López Ruiz,
Yamina Chebicheb Benabbou eta Luz Marina Moreira González.



Zein elkarteekin egingo genuke proiektua?

Proiektu hau gauzatzeko, gizartearen beharrei erantzuten dieten eta baliabideak modu egokian banatzeko interesa duten elkarte eta erakundeekin elkarlanean arituko ginateke. Helburua da **soberan dauden produktuak** bideratzea **premia handiena duten kolektiboetara**. Horregatik, hurrengo erakundeekin lan egitea egokia izango litzateke:

1. Gizarte-laguntzako elkarteak

- Cáritas
- Gurutze Gorria
- Aterpe eta gizarte-otorduak eskaintzen dituzten komunitate-elkarteak (parrokiak, auzo-elkarte solidarioak, auzo-sare informalak, etab)

Hauek behar handiena duten familia eta pertsonengana iristen dira zuzen-zuzenean. Gure produktuen banaketa eraginkorra egiteko funtsezko bitartekariak dira.

2. Elikagaien bankuak eta antzeko egiturak

- Gasteizeko elikagaien Bankua
- Jantoki soziala

Soberakinak jasotzeko eta banatzeko logistikaren zati handia kudeatzen dute. Gure fluxua optimizatzen dute eta esparru zabal batera iristea ahalbidetzen dute.

3. Udaleko gizarte zerbitzuak

- Gizarte langileak
- Emergentzia zerbitzuak
- Udaleko ongizate saileko programak

Haiek kolektibo behartsuenen erregistroak eta informazio eguneratua dituzte eta gure laguntza nora bideratu behar den zehazten laguntze dute. Gainera, kasu larri edo emergentziazkoetan jarduteko aukera ematen dute.

4. Etxe babestuetako eta gazteen zentroetako elkarteak

- Gazteentzako harrera etxeak
- Adingabeentzako zentroak
- Gizarteratzeko programak



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

Produktuak zuzenean erabiltzen dituzte egunerokoan. Gure ekarpenak haien mantenuan eta ongizatean eragin zuzena du.

5. Pobreziaren aurkako eta bazterkeriaren aurkako elkarteak

- Bizitegi
- Harresiak Apurtuz
- Antzeko gizarte-bazterketaren arloko elkarteak

Gizarte-bazterkerian dauden pertsonengana iristen dira, eta gure produktuen banaketa bideratzeko sare fidagarri eta egonkorak dira.

6. Emakumeen eta familien elkarteak

- Emakumeen aterpetxeak
- Genero-indarkeriatik ihesi daudenentzako edo premia bereziehako familientzako zentroak

Sarritan baliabide gutxiarekin egiten dute lan, eta soberakinak oso baliagarriak zaizkie.

7. Enpresak

- Supermerkatuak (iraungitze-datara gerturatzen ari diren janaria emateko.
- Sobera stock duten dendak (arropazkoa, altzairuzkoa, etxeko produktuk, etab)

Gure proiektua sostengatzen duten produktuen lehen mailako hornitzaileak dira. Soberakinak modu arduratsuan bideratzeko aukera ematen dute.

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK GURETZAKO?

Bazkide eta hornitzaile hauek funtsezkoak dira gure negozio-eredua funtzionatzeko. Lehenik, negozio-eredua optimizatzen dute, produktuen horniketa egonkorra eta jarraitua bermatuz, banaketa-sare eraginkor eta fidagarria osatuz eta gure baliabide logistikoak arinduz. Bigarrenik, arriskuak murrizten dituzten eragileak dira, premien arabera banaketa egokia egiteko informazio eguneratua eskainiz, erakundeen arteko koordinazioaren bidez baliabideen alferrik galtzea edo bikoiztea saihestuz eta udal-zerbitzuen eta elkarte espezializatuen babesarekin proiektuaren egonkortasuna eta kontrola sendotuz. Azkenik, baliabideak eskuratzeko aukera ematen dute, produktu soberakin gehiago jasotzeko aukera zabaltzen dute, gizarte-sare zabaletara iristea ahalbidetzen dute gure eragin soziala



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

handituz eta tokiko eragileekin sinergiak sortzen dituzte, proiektuaren jasangarritasuna bermatuz.

INFORMAZIO ITURRIAK

- TuLibroFP
- STARTinnova
- Canva
- <https://www.caritasvitoria.org/>
- <https://elkarteak.org/?c=elkarteak&a=ikusi&i=660>
- <https://es.top10place.com/cruz-roja-alava-arabako-gurutze-gorria-1108173966.html>
- <https://www.findglocal.com/ES/Vitoria-Gasteiz/192799417419803/Cruz-Roja-en-%C3%81lava---Arabako-Gurutze-Gorria>
- <https://es.top10place.com/cruz-roja-alava-arabako-gurutze-gorria-1108173966.html>
- <https://bancoalimentosaraba.org/>
- <https://www.fundacionvital.eus/banco-de-alimentos>
- <https://www.vitoria-gasteiz.org>
- <https://www.araba.eus>
- <https://www.bizitegi.org/>
- <https://harresiakapurtuz.org/>
- <https://www.emakunde.euskadi.eus>